

540 JARDUERA ANITZEKO GELAREN BARNE ARAUDIA

Harrera-gaitasuna : 700 pertsona.

1) Denen esku ezarria den materiala

- 250 kadirak + 40 aulki
- 10 pertsonako 20 mahai (berriak)
- 8 pertsonako 19 mahai (egoera onean)
- 10 pertsonako 4 mahai (egoera txarrean)
- Gela bereizteko 2 panel (egoera onean)
- Gela bereizteko 2 panel (egoera txarrean)
- Sukalde 1 ekipatua : 2 hozkailu, izozgailu 1, furnego 1, baxera ikuzgailu industrial 1, 2 lan mahai, 2 frijigailu
- Sono 1 (soinu sistema)
- Gelaren gibelego lokalean : zola eta baxera garbitzeko produktuak, 4 erratz eta 2 karrakagailu, zola garbitzeko suil 1
- 2 apalategi

2) Gelaren garbiketa gertakari baten ondotik :

a) GARBIKETA :

Sukaldea : erabiltzen bada : xurrutegia, lan mahaia, furnegoa garbitu ; zola garbitu produktu egokiarekin + baxera ikuzgailua

- Zola garbitzean, ebakuazio-saretak kendu
- **Eszena** : erratza pasatu eta beharrezkoa bada, produktuarekin garbitu
- **Gela** : erratza pasatu eta zola garbitu **soilik urarekin**
- **Komunak** : komunak eta zola garbitu, zikinontziak hustu
- hozkailua deslotu eta idekirik utzi
- izozgailua ez deslotu, hutsa bada ere.

b) Kanpoaldea garbitu (berinak, paperak, zigarreta muturrak...)

c) Barneko zein kanpoko **argi guziak itzali** baita berogailua ere, segurtatu kanpora ematen duten ate guziak hetsiak direla (sukaldea, komunak, eszena beheko atea)

d) Antolamendua

- kadirak gelaren zolan, eskuinaldean
- mahaiak gelaren zolan

3) Esku uztearen inguruko arauak

Asteburuko alokatzeari dagokionez, giltzak eman eta itzuliko diren aldi oro, lekuaren egoera-akta egingen da. Gela hau karitatezko elkarteetan, elkarte profesionalen edo Errobi elkargoaren barne den edozein elkarteren esku utzia da.

Herriko etxeak, lokala erregulariki erabiltzen duen elkarte baten gaua hartzeko eskubidea du. Kasu honetan, elkarteari jakinaraziko zaio momentu egokian.

Ostiral, larunbat eta igandetan, ezingo da jarduera erregularretarako erreserbatu, ekimenak antolatu edo partikularrei alokatzeko aukera egon dadin.

Eguberri edo Urtats bezalako gertakarietzat, lokala tokiko elkartei zuzenduko zaie.

22:00etatik goiti, gela guzien ateak hetsirik egon beharko dira. Soinua ere apaldu beharko da, auzoak ez trabatzeko.

Edozein andeatze fakturatuko zaio gela erreserbatu duenari (izan elkarte edo partikular).

Urte bakoitzeko abuztu erdian, elkarteetako arduradunek ondoko urterako jardueren datak eta orduak jakinarazi beharko dituzte herriko etxean.

Noizbehinkako jardueretarako, eskaerak herriko etxean ere egin beharko dira, eta herriko etxeak eskubidea izanen du lokalaren prestatzea plangintzaren arabera erabakitzeko, gelaren erabiltzea baino 15 egun lehenago, gutienez.

Debekatua da gelaren barnean erretzea.

HERTSIKI DEBEKATUA DA AUTOAK GELAN SARTZEA.

Hertsiki debekatua da orgatxo edo paleta batzuekin berina zabaletatik sartzea, babesteko erraila erabili gabe. Alartze lauak dituzten ate bikoitzak hobetsi.

2019ko urtarrilean